

Hitzaurrea

Liburu honen helburu nagusia Zuzenbide Penala euskaraz ikasi nahi duten ikasleei lana erraztea besterik ez da. Horretarako Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatean hamar urtetan zehar emandako irakaskuntzari esker bilduriko materialak idatziz eskaintzen dira *Zuzenbide Penaleko Ikasgaiak* honekin batera. Horrek ez du esan nahi, ordea, Zuzenbide Penaleko liburu hau ohiko eskuliburuak edota bibliografia berezia ordezkatzera datorrenik; ezta gutxiago ere: gehien jota osatzera baizik. Izan ere ikasketa unibertsitario oro ezin baita idatzizko erreferentzia bakar batera murriztu ezta esku-libururik onena balitz ere. Orduan zertara dator esku artean duzun lan hau?

Zuzenbide Penaleko Ikasgaiak hau arlo juridikoa eta, zehatz-mehatz, esparru juridiko-penala euskalduntzeko bidean aurre egin beharreko erronkatik ulertu beharra dago. Euskal Herriko Unibertsitatean, Zuzenbide Fakultatean, irakasgai guztiak euskaraz ematen direnean, eta esparru akademikoko hizkeraren oinarriak behar bezala bideraturik dauzkagunean, ez dira oraindik asko ikasleak (ezta irakasleak) eskura dituen idatzizko materialak. Horiek, jakina denez, klase magistraletan, praktikoetan eta mintegietan esandako eta eztabaidatutakoa gehiago sakontzeko ezinbestekoak dira, eta baita aldi berean esparru akademikotik kanpo aritzen diren eragile juridikoekin elkarrizketa areagotzeko tresna egoki eta eragingarriak ere. Hortaz, irakasleen lehenengo trebakuntza-fasea igaro ondoren, irakaskuntzaren gutxieneko kalitatea bermaturik badago ere, ikasle eta irakaslearen arteko jakintza sortzeko prozesuak bigarren urratsa eskatzen du: idatzizko erreferentziak sortzen hastea. Beste hitzetan: irakasgai juridiko bakoitzaren euskarazko diskurtsoa finkatzeko eta estandarizatzeko moduan gauden honetan, dagoeneko klaseetan erabiltzen den diskurtso juridikoa eta terminologia-altxorra ikasleen eskura ahoz ez ezik idatziz ere jarri beharra dago.

Zuzenbide penalarik dagokionez ZIGOR KODEAREN bertsio elebiduna¹ aipatu ahaleginetan kokatu beharreko lehenengo mugarrira dugu, horren itzulpen-lanaren ondorioz zigor-zuzenbideko 3.250 sarrera inguru bildu zirelako. Edonola ere, aipatu sarrera kopuru mardularen gaitetik, hainbat erakunderen arteko lan horri esker, arlo penalarik diskurtso juridikoaren lehenengo zimentarri sendoak jarri ziren. Ildo honetatik doa, hain zuzen ere, *Zuzenbide Penaleko Ikasgaiak* hau, batez ere ikasleei begira egindako lana izanik, terminologia-arloan eta diskurtso juridikoan jarraipen-lana aurrera eramaten delako. Kontuan eduki beharra dago Zigor Kodearen legean jasotako testuak ez duela inolaz ere agortzen horren gainean dotrina zientifikoak sortu eta eragile juridikoek erabiltzen duten terminologia eta hizkera teknikoak. Ikuspegi honetatik eskuliburu honen bukaeran aurkitzen den hiztegi terminologikoa ZIGOR KODEAREN bildutakoaren osagarri gisa ulertu behar da.

Batek baino gehiagok arestian esandakoarekin bat etorri arren zera galdetuko luke: eta zergatik ez zaio esku-liburua edo antzekoa egiteari ekiten Zigor Kodearen itzulpenari edo esku artean dugun *Zuzenbide penaleko Ikasgaiak* izenekoari baino lehenago? Esparru juridiko-penala euskalduntzea ezin da arineketan gauzatu eta, batetik, euskararen egoera eta erabilera arlo jakin honetan eta, bestetik, euskalduntzeari ekiteko dauden baliabideak kontuan harturik, hauxe da une honetan eman ahal den urrats apala. Edonola ere argi izan dezagun aurkezten den *Zuzenbide Penaleko Ikasgaiak* etorkizunari begira bidea zabaldu behar diola Zuzenbide Penaleko ohiko esku-liburuak sortzeari: zeren eta orduan bai Zati orokorreko bai Zati bereziko funtsezko oinarri akademikoak finkaturik gertatuko baitira.

Lan honen ezaugarriak eta zergatia aurkezturik berez doa ezin dela lan hau azken hitza bezala ulertu. Eta ez da azken hitza, noski, zuzenbide penalarik zientziaren ikuspegitik ezta euskararen inguruko aukeraketatik, bi alderdiotatik muga nabarmenak dituelako. Hainbat urtetako irakaskuntzaren eskarmentuak emandako fruitua besterik ez da ikasleei lagungarri gerta dakiekelakoan modu xumean prestatua eta edozein kritika jasotzeko prest dagoena, baita nahi gabeko okerrak edota ekarpenaren bat ahantzi izana zuzentzeko prest ere.

Hitzaurre luze hau bukatzeko eskerrak eman nahiko nizkieke lan hau ahalbideratzeko orduan erabakigarri izan diren lankide batzuei: lehenik eta behin Rafael SAINZ DE ROZAS BEDIA LAUNETA Zuzenbide Penaleko irakasleari (EHU), euskarazko irakaskuntzan elkarrekin hainbat urtetan aritu ondoren eskuliburu honen *egilekidetza* leporatu behar zaion neurrian; beste alde batetik Adela ASUA BATARRITA Zuzenbide Penaleko katedradunari (EHU) talde-lanaren gidaritzatik *ezinbesteko laguntza* eman baitu eta

¹ Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea/Euskal Herriko Unibertsitatea/Deustuko Unibertsitatea, *Zigor Kodea. Código penal*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2001.

azkenik Norberto DE LA MATA BARRANCO, Maria José VIRTO LARRUSCAIN irakasle titularrei (EHU) baita Mertxe LANDERA LURI irakasleari (EHU) ere. Eskertu beharrekoa da orobat, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Errektoreordetzak eman duen laguntza ekonomikoa, *Zuzenbide Penaleko Ikasgaiak* hau argitara ematea ahalbideratu duena. Azkenik Antton ELOSEGI ALDASORO irakasleari (EHU) eskerrak baino gehiago eman beharko nizkioke, bere goitik-beherako hizkuntz zuzenketei, aholkuei eta proposamen ugari eta futsezkoiei esker testuak zalantzarik gabe hobera jo duelako. Norbaitenak izatekotan, hortaz, berarenak dira lan honen hizkuntza merituak, nireak, ordea, zuzentzen jakin ez ditudan okerrak.